



**EBAZPENA, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako aurrez aurreko eta erdipresentziazko hizkuntza-ikastaro ofizialetan ikasleak 2023-2024 ikasturterako onartu eta matrikulatzeko prozedura deitzen duena.**

1041/2017 Errege Dekretuak, abenduaren 22koak, Egiatapenaren ondoreetarako oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak finkatzen eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen araubide bereziko hizkuntza ikasketen B1 tartekoa, B2 tartekoa, C1 aurreratua eta C2 aurreratua mailen oinarrizko curriculum eta zenbait ikasketa planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak ezartzen ditu.

80/2019 Dekretuak, maiatzaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen du, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeko modua arautzen da.

Agindu horren 3. artikulua ezartzen duenez, urtero-urtero deialdi bat egingo da ikasleak onartu eta matrikulatzeko prozesua aurrera eramateko, eta horretarako, Ikastetxeen zuzendariak ebazpena eman, eta Hezkuntza Saileko web orrian argitaratuko da. Artikulu horretan jaso denez, Ebazpen honetan arautuko dira eskaerak aurkezteko era eta lekua, eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eta prozeduraren fase bakoitzeko epeak.

Ondorioz,hau

EBATZI DUT:

**1.artikulua.- Xedea eta aplikatu beharreko araubidea.**

1.- Ikasleak onartu eta matrikulatzeko prozedura deitzen da, 2023-2024 ikasturtean hizkuntza-ikastaroak aurrez aurre eta erdipresentziazkoak ofizialki ikasteko Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakaskuntzek dituzten honako maila hauean: Oinarrizko maila (A1 eta A2), Tarteko maila (B1 eta B2) eta maila Aurreratuan (C1). Prozedura hori garatzeko ebazpen honetako I. Eranskinean finkatzen den egutegiari erreparatuko zaio.

2.- Erkidego honetan eskainiko diren mailak, Oinarrizko A1etik Aurreratua C1era artekoak, sei ikasturtetan antolatuko dira:

Oinarrizko maila, bi ikasturte: A1, A2.

Tarteko maila B1, ikasturte bat.

Tarteko maila B2, bi ikasturte B2.1, B2.2

Maila Aurreratua C1, ikasturte bat.





3.- Deialdi hau arautzen dute, batetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2013ko uztailaren 3an emandako Aginduak (Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeko modua arautzen da, eta EHAAn argitaratu zen 2013-07-22an) eta bestetik 80/2019 Dekretuak, maiatzaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duenak, irakaskuntza horietako oinarritzko A1 mailaren, oinarritzko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.

## **2.artikulua.- Baldintzak, prozedura eta baremoa.**

1.– Hizkuntza-eskola ofizialetan matrikula egiteko ezinbestekoa izango da matrikula egiten den urtean hamasei urte beteta izatea. Salbuespen gisa, matrikula egin ahal izango dute, baita ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitako hizkuntza ez den beste bat erregimen ofizialean ikasi nahi duten ikasleak, ikasketak hasten diren urtean hamalau urte beteta badituzte<sup>1</sup>.

2.– Ikasleek ezin izango dute gaztelania ikasteko matrikula egin haien herrialdeetako hizkuntza ofiziala gaztelania bada<sup>1</sup>.

3.– Aurreko deialdiren batean maila jakin batean matrikulatuta egon diren pertsonak ezin izango dute maila baxuago batean matrikula egin, ez eta gaindituta duten maila batean edo baxuagoan ere. Horretarako, kontuan hartuko dira baita ere aurreko ikasketa-planetan gainditutako mailak, matrikula egiteko unean daudenen baliokideak direnak lege<sup>1</sup>.

4.– Ikasturte berean eta hizkuntza bererako, ikasleek ezin izango dute aldi berean erregimen ofizialean eta librean matrikula egin<sup>1</sup>.

5.- Pertsona bakoitzak gehienez hiru hizkuntzatan eskatu ahal izango du matrikula.

6.- Aurrez-aurreko prestakuntza-eskaintza goizez edo arratsaldez izan ahalko da. Arratsaldeko ordutegia 14:00etatik aurrera hasiko da. Ikastetxe bakoitzak publikoa egingo du bere eskaintza matrikula epea zabaldu aurretik. Prestakuntza-eskaintzan zehaztuko da zein diren talde erdipresentzialak.

7.- Taldeak osatu ahal izateko, ikasgelako gutxienez 10 ikasle behar dira izan matrikulatuta matrikulazioaren lehenengo fasea bukatu ondoren. Gutxienerako hori ez badago talderen batean Ikastetxe eta Plangintza Zuzendariak salbuespen gisa eta arrazoiak aztertuta, taldeak osatzea baimendu ahal izango du. Talde bat osatzen ez bada, ikastetxeak eskaintza alda dezake.

8.- Eskaintza erdipresentzialak urrutiko irakaskuntza (online), ikastetxetik kanpo egin beharrekoa, eta irakaskuntza presentziala, ikasgelan irakaslearekin eta beste ikaskideekin elkarlanean egin beharrekoa, konbinatuko ditu.

---

<sup>1</sup> AGINDUA, 2013ko uztailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa. 2. artikulua.



9.- 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren arabera, prozedura egingo da, lehentasunak aplikatu, eskabideak barematu beharko diren egoerak zehaztu eta baremoa aplikatuko da, aplikatu behar denean.

**Eskabidean alegatutako eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte egindako merituak baino ez dira barematuko.**

10.- Eskabidea egin nahi duen pertsonak nazionalitate espainola badu, haren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) zenbakia eta iraungitze data erabili beharko ditu, nahitaez, bere burua identifikatzeko. Pertsona atzerritarrek Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) eta Atzerritarren Identifikazio Txartelaren (AIT) zenbakiaren eta iraungitze-dataren bidez identifikatuko dira<sup>2</sup>.

Atzerritarren Identifikazio Zenbakirik ez duten Norvegiako, Islandiako, Liechtensteineko, Suitzako eta Espainia ez den Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarrak haien herrialdeak emandako beste nortasun-agiri ofizial baten bidez identifikatu ahal izango dira. Horrelakoetan, identifikazio-datuak benetakoak direla egiaztatzeko, dagokion dokumentua aurkeztu beharko da hizkuntza-eskolan dagokion prozesua deitzen duen ebazpenean ezarritako epean<sup>2</sup>. Eskatzaileak ez badu dokumentu hori dagokion epean aurkezten, prozesutik kanpo geratuko da

**3.artikulua.- Tokiak esleitzeko lehenengo fasea. Aurkeztu beharreko eskaerak eta dokumentazioa.**

1.- Esleipenaren lehenengo fasean, eskabidea aurkeztu beharko dute 2023-2024 ikasturtean Hizkuntza Eskoletan onartuak izan eta matrikula egin nahi duten guztiek, salbu kurtso berean matrikulatuta egon daitezkeen urte<sup>3</sup> guztiak agortuta dituztenak.

2.- 2023ko irailaren 1etik 18ra arte, biak barne, 13:00ak arte, aurkeztu ahal izango dira eskabideak. 2022-2023 ikasturtean matrikulatuta egon eta ekaineko deialdia gairatu ez duten ikasleek 2023ko irailaren 15etik 18ra, biak barne, 13:00ak arte, bakarrik aurkeztu ahal izango dute eskaera, behin iraileko deialdiaren emaitzak jakin ondoren.

3.- Eskabidea egiteko Ikasgunean erregistratzea beharrezkoa izango da, NAN, AIZ edo HNA (Hezkuntzako Nortasun Agiria) zenbakiarekin. Behin erregistratuta, Ikasgunearen bidez bete ahal izango dute eskabidea interesdunek.

Adingabeen eskaeren kasuan, tutorea izango da Ikasgunean erregistratuko dena, dagozkion gakoekin, eta, ondoren, adingabearen eskaera egingo du, adingabearen izena adierazita. Hau da, **matrikula adingabearen izenean egon beharko du.**

---

<sup>2</sup> AGINDUA, 2013ko uztailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa. 5.6. artikulua.

<sup>3</sup> 80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hiz-kuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera. 5.2. artikulua.



4.- AIZ, NAN edo HNA agiririk ez duten Norvegiako, Islandiako, Liechtensteineko, Suitzako eta Espainia ez den Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarrek HNA (Hezkuntzako Nortasun Agiria) eskatu behar izango dute Hizkuntza Eskola Ofizialean.

5- Eskaerak formatu elektronikoan (on-line) aurkeztuko dira, horretarako hezkuntza arloan eskumena duen sailak gaitu duen aplikazio informatiko baten bitartez, eta kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa erantsiko da. Eskabideak aurkezteko, <https://ikasgunea.euskadi.eus> helbidera jo behar da. Eskatutako dokumentazio guztia Ikasgunearen bidez ere erantsi ahal izango da.

6.- Pertsona batek bi hizkuntzatan edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bat aurkeztu beharko du hizkuntza bakoitzeko<sup>4</sup>. Pertsona bakoitzak gehienez hiru hizkuntzatan eskatu ahal izango du matrikula.

7.- Eskatzaileek eskabide bakar bat eta eskola bakar batean egin ahal izango dute hizkuntza bakoitzeko. Ez dira onartuko hizkuntza bererako hainbat eskolatan eta/edo mailatan aurkeztutako eskabideak<sup>4</sup>. **Pertsona batek hizkuntza baterako eskola batean baino gehiagotan eskaerak egiten baditu, denak baztertuko dira.**

8.-Eskolako hezkuntza-eskaintzan bi kurtso jarraitu ematen dituen talderik badago, bi kurtsoetako matrikula egin ahal izango dute talde horietan matrikulatzen diren pertsonak<sup>4</sup>.

9.- Hizkuntza Eskolak egiaztatuko ditu nortasuna, datuak, baldintzak betetzen diren ala ez, eta barematu beharreko egoerak, betiere Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuaren bidez, salbu hurrengo atalean adierazitako egoeretan; kasu horretan, eskatzaileak berak egiaztatu beharko ditu agiri bidez.

10.- Dokumentazio-entregatzea<sup>5</sup>: Ondorengo ataletan azaltzen den dokumentazio guztia ikasgunearen bidez aurkeztu ahal izango da <https://ikasgunea.euskadi.eus> edo eskaera egin den eskolan, betiere 2023ko irailaren 18ko 13:30ak arteko epe muga kontuan hartuta. Aurkeztu behar den dokumentazioa:

a) Desgaitasunen bat alegatzen dutenek edo, adin txikikoa izanik, aitaren, amaren, legezko tutorearen edo anaia edo arrebaren baten desgaitasuna alegatzen dutenek: 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 17. artikuluan eskatzen diren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

b) Familia Ugaria direnek, Euskal Autonomia Erkidegokoak salbu, **beste Autonomia Erkidego batek luzatutako titulu ofiziala aurkeztuko dute**. Dokumentu hori eskatutako hizkuntza-eskola ofizialean aurkeztu behar izango da Ebazpen honetan zehazten den epean. Dagokion dokumentua aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da, eta ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskubiderik ez du izango.

<sup>4</sup> AGINDUA, 2013ko uztailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa. 5. artikulua.

<sup>5</sup> Salbuetsita EZ dagoen eta "entregatu gabe" dagoen dokumentazio guztia Eskolan edo Ikasgunearen bidez aurkeztu beharko da irailaren 18ko 13:30ak baino lehen.



Euskal Autonomia Erkidegoak emandako Familia Ugarien tituluen kasuan, ofizioz egiaztatuko dira Administrazioak duen informazioarekin erkatuta, betiere egiaztapen hori posible bada eta interesdunak baimena eman badu. Interesdunak ez badu baimenik eman edo **ezin badira datuak ofizioz egiaztatu, eskatzaileak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du plaza eskatu duen hizkuntza-eskolan edo Ikasgunearen bidez**. Egiaztagiri hori aurkezteko epea irailaren 18an amaituko da, 13: 30ean.

c) Lanbide-egoerari buruzko baremo-atala aplikatzeko eskatzaileak aurreko ikasturtean eman baditu klaseak itundu ez den ikastetxe pribatu batean edo autonomia-erkidego honetako unibertsitate publiko edo pribatu batean, **eskatzaileak dagokion ikastetxeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da**.

d) Azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikulua arabera terrorismoren biktimak diren eskatzaileek **dagokien Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak edo antzeko erakundek egindako egiaztagiria aurkeztu behar dute**.

e) EAEko kanpoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasle ofizialek **aurkeztu beharko dute haien eskolako ziurtagiria eta horretan adierazi behar da ofizialak direla dagokion hizkuntzan**.

f) Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak eskoletarako edo/eta azterketarako laguntza eskaria egin badute eskabide orrian **gaurkotutako mediku edo urritasun agiria aurkeztu beharko dute**. Ez badute hori jakinarazten, ez zaie curriculum-laguntzarik edo ebaluazio-probak egiteko behar duten laguntzarik bermatuko.

Ebazpen honen bigarren xedapen gehigarrian adierazitako moduan ere aurkeztu ahal izango da 10. atalean aipatzen den dokumentazioa.

**Eskabidean alegatutako eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte egindako dokumentazioa baino ez da barematuko.**

#### **4.artikulua.- Behin-behineko eta behin betiko onarpen- edo baztertze-egoera.**

1.- Ebazpen honetako I. Eranskinean finkatutako egutegia kontuan izanik, interesdunek ikasgunean kontsultatu ahal izango dituzte <https://ikasgunea.euskadi.eus> behin-behineko eta behin betiko onarpen- edo baztertze-egoera; eskatzaileak barematu behar direnean, lortutako puntuak adieraziko dira, eta inor baztertuz gero, zergatik geratu den kanpoan. Ezin izanez gero egin ikasgunearen bitartez gero, eskaera egin duten eskolaren idazkaritzan ere egongo da kontsulta egiterik.

2.-Behin-behineko egoeraren kontrako erreklamazioak Ikasgunearen bidez aurkeztu ahal izango dira, erantsitako egutegian adierazitako epeetan. Erreklamazio-inprimakia Sailaren web gunean eta Hizkuntza Eskolan bertan ere izango da, erreklamazioa eskaera egin den eskolako idazkaritzan bertan aurkeztuko den kasuetarako.

3.- Behin betiko egoeraren kontrako errekurtsioak hilabetean aurkeztu beharko zaizkio Hezkuntzako lurralde-delegatuari: Eskola zein lurraldetakoa izan, lurralde horretako delegatuari.

**5. artikulua.- Prezio publikoa ordaindu eta matrikula formalizatzea.**

1.- Matrikula egiteko, onartutako pertsonak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduan ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko du. Agindu horren bidez, sail horrek ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dira. Zenbateko hori 72,36 eurokoa izango da ikasturte eta hizkuntza bakoitzeko.

**Ordaintzetik salbuetsita dauden pertsonak, matrikula-kopurua ordaindu behar ez badute ere, aplikazioan amaitu beharko dute ordainketa-prozesua, onartuak izateko.**

Talde trinko baten ordainketa egin nahi duten pertsonak (ikasturte batean bi maila ikasten dira) ordainketa-karta bat atera beharko dute maila bakoitzeko.

2.- Erantsitako egutegian adierazten den epean ordaindu beharko da matrikula telematikoki, Ikasgunearen bidez, eta 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 7. artikuluko 2. atalean adierazitako moduan. **Ordainketa tramitatzeko Internet bidez gorabeherarik edo zailtasunik dutenek Hizkuntza Eskola Ofizialera jo beharko dute, jendearentzako arreta-ordutegian, zein Eskolatan matrikulatu nahi duten, Eskola horrexetara joan beharko dute**, lagundu diezaieten edo izapide horiek modu telematikoan egiteko baliabide materialak utz diezazkieten.

3.- 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, **prezio publikoa epean eta forman ordaindu ezean, ikasle modura onartzeko eskubidea galduko da, eta tokia hutsik geratuko da.**

**6. artikulua.- Lehenengo fasearen ondoren tokiak esleitzea.**

1.- 2023ko urriaren 11an esleituko dira lehenengo fasean hutsik geratuko diren tokiak.

2.- 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 20. artikuluko 2. atalaren arabera, esleipen-aldi honetan lagun hauek parte hartuko dute, lehentasun-ordena honen arabera:

a) Lehenengo fasean parte hartu, eta baldintzak bete arren, tokirik gabe geratu direnak eta 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 6. artikuluko 4. atalean azaltzen den itxarote-zerrendako lagunak.

Egoera horretan egongo diren pertsonak eskaeran aukeratutako ordutegia eta eskola aldatu ahal izango dute. Aldaketa horiek egiteko epea urriaren 6an 13:00etan bukatuko da.

b) Kurtso berean matrikulatuta gehienez ere egin daitezkeen urte guztiak agortuta dauzkatenak, baldin eta ezohiko matrikula egiteko eskatu eta lortu badute; matrikula berezi hori egiteko aukera 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 13. artikuluko 3. ataleko b) idatz-zatiko azken paragrafoan azaltzen da.

c) Baldintzak bete arren, eskabidea epez kanpo aurkeztu dutenak.

3.- Bigarren fasean parte hartzeko, ez da beste eskabiderik egin behar, salbu aurreko b) idatz-zatian azaltzen den matrikula berezia egin behar denean; hori, berriz, Ebazpen honetako I. eranskinean agertzen den epean eskatu beharko da.



4.- Matrikula formalizatzeko, prezio publikoa ordaindu beharko da urriaren 11tik urriaren 15eko 23:59ak arte, eta 2013ko uztailaren 3ko Aginduaren 7. artikuluan adierazitako moduan.

Urriaren 17an, 12etatik aurrera, behin-behineko matrikula ordainketaren egoera argitaratuko da Ikasgunean. Erreklamazio epea urriaren 17tik urriaren 18ra izango da, 13:00ak arte. Urriaren 24an, 8:00etatik aurrera, ordainketaren behin betiko egoera argitaratuko da, erreklamazioak aztertu ondoren.

Urriaren 26an hutsik gera diren plazak argitaratuko dira eskola bakoitzeko web gunean, aurrez aurreko esleipena egiteko.

5.- Tokien aurrez aurreko esleipena urriaren 27tik azaroaren 2ra izango da. Plaza libreen esleipenaren ordutegia eskola bakoitzak argitaratuko du bere web orrian. Itxaron zerrendan dauden ikasleek lehentasuna izango dute. Esleipena horren ordaintzeko epea urriaren 27tik azaroaren 5era, 23:59ak arte, izango da.

#### **7. artikulua.- Onartze prozesuaren ondoren hutsik geratutako tokiak esleitzea.**

1.- Aurrez aurreko esleipena egin ostean toki hutsik geratuz gero, Eskola bakoitzaren Zuzendaritzak esleitu ahal izango ditu, 2023ko azaroaren 9tik 2024ko urtarrilaren 31 arte.

2.- Plaza lortzen dutenek prezio publikoa ordaindu beharko dute.

#### **Artículo 8.– Datu pertsonalak babestea.**

Organo kudeatzaileek eskabideetan eskuratutako datu pertsonalak honako prozedura hau antolatzeko erabiliko dituzte: 2023-2024 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako plazak esleitzeko eta matrikulak egiteko prozedura, zeinaren arduradun baitira organo kudeatzaile horiek. Hori guztia, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko.

Gainera, esleipen-prozesuan parte-hartzaileen esleipen egoerari buruzko informazioa Ikasgunean kontsultatu ahal izango dira, eta ezingo dira argitaratu iragarki-oholetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

#### **9. artikulua.- Azterketako proben egutegia.**

Ebazpen honen babesean dagoen ikasleentzako idatzizko azterketen proben egutegia finkatzen da, deialdi ohikoa eta ez ohikoarena.

Egutegi hori Ebazpen honetako **II. Eranskinean** dago.

#### **10. artikulua.- Probak egitean ikasleak kanporatzea.**

Epaimahaiek ahalmena izango dute ikasle bati probak egiteko aukera kentzeko eta probak egiten ari diren esparrutik kanporatzeko, baldin eta ikasle horrek azterketak egiten ari dela



iruzurrezko edozein ekintza egiten badu edota gainerako parte-hartzaileekiko jokaera desegokia edo gogaikarria baldin badu.

**Lehenengo xedapen gehigarria.- Eskabideak modu telematikoan aurkezten eta prezio publikoak ordaintzen laguntzea.**

1.- Eskabidea modu telematikoan (Internet bidez) betetzeko edo prezio publikoa ordaintzeko gorabeherarik edo zailtasunik dutenek Hizkuntza Eskola Ofizialera jo beharko dute, lagundu diezaieten edo izapide horiek modu telematikoan egiteko baliabide materialak utz diezazkieten. Zein Eskolatan matrikulatu nahi duten, Eskola horretara joan beharko dute, jendearentzako arreta-ordutegian eta eskabideak aurkezteko edo prezio publikoa ordaintzeko epean.

2.- Modu telematikoan arazorik edo zailtasunik izatearren kanpoan geratutako egoeraren kontrako erreklamaziorik egin behar izanez gero, Eskolako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, adierazteko pertsona horrek epe barruan jo zuela dagokion Eskolara, zailtasun horiek gainditzeko.

3.- Horrelako gorabeherarik izan ez dadin, beti gomendatzen dugu ez atzeratzea epe-amaierara arte izapide telematiko horiek egiteko lanak.

**Bigarren xedapen gehigarria.- Dokumentuak eta idazkiak paperean aurkeztea.**

1.- Zein Hizkuntza Eskolatan matrikulatu nahi den, Eskola horretako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio paperean aurkeztu beharreko agiriak (Ebazpen honetako 3. artikuluko 7. atalean zehazten direnak) eta matrikula bereziko eskabideak -6. artikuluko 2. ataleko b) idatz-zatia eta lehenengo xedapen gehigarriko 2. atala- Agiri horiek Hizkuntza Eskolatako bulegoetan aurkeztuko dira, hain zuzen ere helbide hauetan:

- Vitoria-Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Lasarte errepidea, 21A, Vitoria-Gasteiz.
- Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Bizkaia ibilbidea, 22; Donostia.
- Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Otaola Hiribidea, 29 Eibar.
- Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala: Alcaldía de Sacas, 13; Irun.
- Tolosako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Paper kalea, 1-3; Tolosa
- Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Barrena parkea, z/g; Ordizia.
- Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala: San Pedro plaza, 5; Bilbo.
- Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Eskoletako enparantza, z/g; Getxo.
- Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Zubiarrea, 1; Durango.
- Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Juan de Garay kalea, z/g; Barakaldo.
- Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Zubiaur tar Kepa, 72; Bermeo.
- Basauriko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Bentako plaza, 1; Basauri.
- Zallako Hizkuntza Eskola Ofiziala: La Inmaculada, 15 bis; Zalla.
- Santurtziko Hizkuntza Eskola Ofiziala: José Miguel de Barandiarán, 12; Santurtzi.





Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira, helbide hauetan:

- Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10 behea, Vitoria-Gasteiz.
- Bizkaia: Kale Nagusia, 85; Bilbo.
- Gipuzkoa: Andia 13; Donostia.

Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkez daitezke eskabideak, lege horretan ezarritako baldintzatan. Posta-zerbitzuko bulegoren batean aurkeztu nahi bada eskabidea, kartazal irekian aurkeztu beharko da, eta zerbitzu horretako funtzionarioak eguna eta zigilua jarri beharko dizkio, kartazala egiaztatu aurretik. Horrela egin ezean, helburuko bulego publikoan duen sarrera-eguna joko da sarrera-eguntzat.

2.- Ebazpen honetako 3. artikuluko 7. atalean adierazten den dokumentazioa aurkezteko, jatorrizko dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko da. Fotokopia eta jatorrizko dokumentua bat datozela egiaztatu beharko du baimendutako notario batek; bestela, fotokopia konpultsatu beharko du Hezkuntza Eskola Ofizialeko bulegoak edo erregistro nagusiak edo laguntzaileak, beti ere apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuko 17. artikulua arabera (72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; 2008-05-30eko EHAA).

3.- Ebazpen honetako 3.artikuluaren 10.atalean aipatzen den dokumentazioa ikasgunearen bidez aurkezten bada, eskolak dokumentu originala aurkeztea eskatu ahal izango du konpultza egiteko.

#### **Azken xedapenetan lehenengoa. Ondorioak.**

Ebazpen honek ondorioak izango ditu Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzen denean. Bertan mantenduko da, eranskinekin batera, deitutako prozedura amaitu arte eta hura betetzeko errekurtsio-epeak igaro arte.

#### **Azken xedapenetako bigarrena. Errekurtsoak.**

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari hilabeteko epean, Hezkuntza Saileko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz

Eugenio Jiménez Ibáñez  
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIA



**I. ERANSKINA**  
**2023-2024 MATRIKULA EGUTEGIA**

**1.- Plazak esleitzeko lehen fasea:**

Eskaerak betetzea	2023/09/01etik 2023/09/18ko 13:00etara
Eskaerak betetzea, aurreko ikasturtean ikasleak izan direnak eta ekainean gairitu ez dutenak edota ekainean aurkeztu ez direnak	2023/09/15etik 2023/09/18ko 13:00etara
Dokumentazioa aurkeztea	2023/09/18ko 13:30ak arte
Onartuak eta baztertuak: behin-behinekoa	2023/09/20ko 10:00etatik aurrera
Erreklamazioak aurkeztea	2023/09/20tik 2023/09/21eko 14:00etara
Onartuak eta baztertuak: behin betikoa. <b>Lehen esleipena</b>	2023/09/26ko 10:00etatik aurrera
Ordaintzeko epea	2023/09/26tik 2023/10/01eko 23:59ra
Ordainketa ez egiteagatik baztertuak: behin-behineko egoera	2023/10/03ko 12:00etatik aurrera
Erreklamazioak aurkeztea	2023/10/03tik 2023/10/04ra
Ordainketa ez egiteagatik baztertuak: behin betiko egoera	2023/10/10eko 11:00etatik aurrera

**2.- Plazak esleitzeko bigarren fasea:** Fase honetan lehenengoan hutsik geratuko diren plazak beteko dira, hurrenkera honetan:

- 1.- Lehenengo esleipenean plazarik gabe geratu direnen artean. Zuzenean sartzen dira bigarren fasean.
- 2.- Salbuespeneko matrikula eskatzen dutenen artean, (a).
- 3.- Lehen faseko matrikula epea bukatu ondoren (irailaren 16tik aurrera) eskabidea aurkeztu dutenen artean, (b).

Salbuespeneko matrikula eskabideak (a)	2023/09/18ko 13:00etatik 2023/10/06ko 13:00etara
Bigarren fase honetan libre geratu diren plazak betetzeko eskabideak (b)	2023/09/18ko 13:00etatik 2023/10/06ko 13:00etara
Dokumentazioa aurkeztea (a eta b kasuak)	2023/10/06ko 13:30ak arte
Plaza hutsak esleitzea. <b>2. esleipena</b>	2023/10/11n
Ordaintzeko epea	2023/10/11tik 2023/10/15eko 23:59ra
Ordainketa ez egiteagatik baztertutako pertsonen behin-behineko egoera	2023/10/17ko 12:00etatik aurrera
Erreklamazioak aurkeztea	2023/10/17tik 2023/10/18ko 13:00etara
Ordainketa ez egiteagatik baztertutako pertsonen behin betiko egoera	2023/10/24ko 08:00etatik aurrera

**3.- Aurrez aurreko esleipena:** Eskolan bertan egingo da. Libre geratu diren plazen esleipenaren ordua eskola bakoitzak bere web gunean zintzilikatuko du.

Plaza hutsak argitaratzea. Aurrez aurrekoa	2023/10/26an
Aurrez aurreko esleitzea	2023/10/27tik 2023/11/02ra
Ordaintzeko epea	2023/10/27tik 2023/11/05eko 23:59ra
Libre geratutako plazak edota libre geratuko direnak	2024/01/31ra arte



**II. ERANSKINA**  
**2023-2024 IKASTURTEKO OHIKO ETA EZOHIKO DEIALDIEN EGUTEGIA**

HIZKUNTZA	MAILA	OHIKO DEIALDIA	EZ OHIKO DEIALDIA
ALEMANA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/27	2024/09/06
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/27	2024/09/06
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/27	2024/09/06
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/27	2024/09/06
ATZERRITARRENTZAKO ESPAINIERA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/28	2024/09/09
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/29	2024/09/09
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/28	2024/09/09
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/29	2024/09/09
EUSKARA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/22	2024/09/04
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/22	2024/09/04
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/20	2024/09/04
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/22	2024/09/04
FRANTSESA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/24	2024/09/05
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/24	2024/09/05
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/24	2024/09/05
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/24	2024/09/05
NGELESIA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/23	2024/09/03
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/23	2024/09/03
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/17	2024/09/03
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/21	2024/09/03
ITALIERA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/31	2024/09/02
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/31	2024/09/02
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/30	2024/09/02
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/30	2024/09/02



HIZKUNTZA	MAILA	OHIKO DEIALDIA	EZ OHIKO DEIALDIA
-----------	-------	-------------------	----------------------

PORTUGESA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/06/04	2024/09/10
	TARTEKO M. (B1)	2024/06/04	2024/09/10
	TARTEKO M. (B2)	2024/06/03	2024/09/10
	M. AURRERATUA(C1)	2024/06/03	2024/09/10

ERRUSIERA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/28	2024/09/09
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/29	2024/09/09
	TARTEKO M. (B2)	2024/06/05	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/06/06	

Dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialean kontsultatu ordutegiak eta ahozko azterketen datak.